



OROZKOKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



Dokumentuaren izenburua:	OROZKOKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua. Sintesi diagnostikoa
UT21 Nerbioi-Ibaizabal	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
Laguntza teknikoa:	
Jasotzailea:	Orozko
Parte hartu duten udalak:	Arakaldoko udala Arrankudiagako udala Arrigorriagako udala Etxebarriko udala Galdakaoko udala Orozkoko udala Ugao-Miraballeseko udala Urduñako udala Zaratamoko udala Zeberrioko udala
Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa	UT21 Nerbioi-Ibaizabal
Orrialdeak:	39
Hizkuntza:	Euskara
Bertsioa:	Behin betikoa
Entrega data:	2012ko iraila

AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA.....	6
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA.....	10
HELBURUAK.....	11
LAN PROGRAMA	12
ARLO TEMATIKOAK.....	13
EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK	14

LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, Diagnostikoaren ondorio nagusienak adierazten dira:

GIZARTEA ETA EKONOMIA

Orozkok azken urte hauetan **etxebizitza erakarpen foku** bilakatzea lortu du, modu honetan azken hamarkadetako biztanleriaren beherakada progresiboa geldiaraziz eta populazio gazteago bat lortuz, nahiz eta pertsona helduen kopurua nabarmena izaten jarraitu. Beharrezkoa da, baita ere, azken urteetako populazio atzerritarraren pixkanakako igoeraren ondorioak aurreikustea ager daitezkeen eskaerak asetzeko.

Industria-sektoreak (eraikuntza barne) nahiz **zerbitzu-sektoreak** pisu nabarmena daukate udalerrriaren ekoizpenean eta lan okupazioan, goranzko joera batekin industriaren kasuan eta beheranzko joerarekin industriaren kasuan, nekazaritzako sektorearen pixkanakako beherakada ematen den bitartean nahiz eta sektore garrantzitsu bat izaten jarraitu, bere sustapena, **turismo-sektorearekin** batera, udalerrientzat garrantzizko estrategia izanik.

Orozko Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrien artean **euskalduna den biztanleria gehien** duen bigarren

udalerria da, baina beheranzko eboluzioa ageri du. Inguruabar honek

kale eta batez ere etxeko erabilera konparazioz txikiagoan du isla, horrek esan nahi duelarik euskararen ezagutzan eta, batez ere, eguneroko bizitzako euskararen erabilera bultzatzen duten politikak bultzatuz eta aurrera eginez jarraitu beharra dagoela.

Kirol, eta batez ere, **kultur jardueren garapenerako guneak** egokitzea, berritzea eta balioan ipintzea udalerrriaren erronka garrantzitsua da eta baita antolatutako kultur eta kirol gertaeren eskaintza eta gizarte erantzun handiagoa bermatzen duen Udal eta gizarte eragileen arteko **jarduera koordinatuen** garapena ere.

Gizartearen, lanaren eta udalerrriaren arloetan **genero berdintasunaren** bultzadarako zeharreko ekintzen garapenarekin jarraitu eta biztanleriaren artean Informazio eta Komunikazio Teknologien ezaguera eta erabilera handiagoa lortzea dira behar bezalako gizarte ongizate bat lortu ahal izateko betetzeke dauden erronkak.

Etxebizitzen zaharberitzea sustatzea eta birgaiketarako zein energi iraunkortasunerako diru laguntzei buruzko informazioa indartzea, eraikita dagoen ondarearen kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera eraginkorra lehenetsiz, burutuko den HAPOaren berrikuspenean etxebizitza politikaren arloan kontutan hartu beharreko lehentasunak dira.



LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK


Orozko, Gorbeako Mendilerroan kokaturik eta Altube ibaiarengatik ureztaturik, **luzapen handiko** udalerria da bizitegi-lurzorua bi zatitan banatua daukalarik bideetako azpiegiturak direla eta. Populazioaren parterik handiena eta industria eta zuzkidura kokalekuak biltzen diren **erdigune** bat dauka eta baita etxebizitza barreiatu eta **landa-nukleo ugari**. Udalerrri honetan lurzoru urbanizaezinak lurraldearen zati handia hartzen du, bere **paisaian** basoak dira gailentzen direnak eta hauetan jabego pribatukoak batez ere diren koniferoak dira nagusi.



Herri planeamenduko **Plan Orokorren berrikuspena** udalerrriak etorkizunari begira duen erronka esanguratsuenetakoa da. Planeamenduaren berrikuspenak, iraunkortasun eta energi eraginkortasuneko irizpideak kontutan izateaz gain, ondokoak ere baitaratu behar ditu: arkitektura intereseko eraikinen zaharberritzea, behar gehien daukaten auzo eta puntuetan hirigintza erreformen gauzatzea eta nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babesa.

Paisaia, animalia eta geologiaren ikuspuntutik **natur balio handiko ingurune** bat dauka. Udalerrriaren parte handi bat babestutako irudiak dituzten eremuetan dago kokaturik, hala nola, Gorbeia BGLa, Itxina Mendiguneko Babestutako Biotopoa eta Gorbeia-Ganekogortako korridore ekologikoa eta beraren amortizazio eremua. Gainera, ingurune eta habitat aniztasun handia, sailkatutako ikus arto mota asko eta Erabilera Publikoko Mendien azalera garrantzitsuak dauzka. Hauen babesa, kontserbazioa eta balioan ipintzea **inguru naturalaren** antolamendu eta kudeaketarako adierazgarriak diren arloak dira.

Bere inguru funtzionalarekin dituen **errepide bidezko komunikazioak** onak dira; inguruko herriekin errepidezko garraio publikoak medio dituen loturak egokiak dira baina auzoek herriaren erdigunarekin daukaten komunikazioa eskasa da garraio publikorik ez baitago eta horrek oinezkoen zirkulazioan eta ibilgailu pribatuarekiko alternatiboa den mugikortasunean zailtasunak ekartzen ditu, **udalerrri beraren barruko mugikortasunari** dagokionez, Udal Mugikortasun Planarekin gainditzeko dihoazelarik.



BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA



Orozko zuzenean arduratzen da **uraren zikloaren kudeaketaz**, non kontsumitutako eta banatutako ur bolumenaren erregistroa eta kontrola hobetuz, horniketaren optimizazioa eta batez ere saneamendura bideratu behar diren esfortzuak, hondakin-uren tratamendua hobetuz.

Urteko biztanleko hondakinen sorrerak goranzko joera erakusten du, era berean hondakinen berreskurapen portzentajea jaitsi egin delarik azken urteetan, hondakinen murrizketan eta banaketaren hobekuntzan aurrera egiten jarraitu beharra dagoen arren. Izan ere, eragile guztien sentikortzeari, herritarrei zuzenduriko neurri sustatzaileen ezarpenari, administraziok exenplu emaile gisa duen paperari eta banakako zein komunitateko konpostaje sistemen bultzadari ekin behar zaio, aldi berean informazio zehatzagoaren eskuratzea ahalbidetuz.

Udalerrriaren energi egiturak, EAEko beste udalerrri askorenaren antzekoa, erregai fosilen erabilera handia eta Berotegi Efektuko Gasei (BEG) eginiko ekarpen nabarmena dakar berekin. Beraz, arlo honetan sakontzea udalerrriak duen beste erronka handietako bat da, ez soilik maila publikoan baizik eta baita maila pribatuan ere. Era horretara iturri ez berriztagarriekiko menpekotasuna murriztuko da eta BEGen murrizketari ekarpena egingo zaio. Azken urteotako energi kontsumo gero eta handiagoa eta etxeko kontsumo egonkorra kontutan edukirik, energia berriztagarrien garapena eta kale argiztapenaren eraginkortasunarekin jarraitu beharreko zeregin lehenenak bihurtu dira.

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNEKO KOORDINAZIOA

Partaidetza kultura nahiz kontzientzia komunitarioa sortzen duten partaidetza egitura berrien sendotzeranzko bidean aurrera egitea hasiberria den prozesua da baina fruituak jasotzen ari da jada.

Sentikortzearen, prestakuntzaren eta jardunbide egokietan oinarritutako herritarren eta Tokiko Administrazioaren egunez eguneko ohitura aldaketa udalerriaren tokiko iraunkortasun prozesuaren giltzarria da.

Burutzen ari diren politika zenbaitzuen zeharreko izaerak **departamentu arteko koordinazio eta elkarlana are gehiago indartzeko** beharra agerian uzten du.



AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerrriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxeei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21**: Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
 2. **Industriako Agenda 21**: Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
 3. **Eskolako Agenda 21**: Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
 4. **Hondakinen kudeaketa**: Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorrak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
 5. **Mugikortasun iraunkorra**: Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.
- 6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko**.

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Orozkoko Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.

HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitzea.
- Plana iraunkortasunaren tokiko kudeaketaren bilakaerara egokitu
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerrian giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutuan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berriari sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarrizko metodologia “**EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa**” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarrizko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, **lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Udal teknikariek bakarkako elkarrizketen bitartez edo talde lanaren bitartez Hirigintzako Batzordearen bitartez.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** herritarrei zuzendutako pertzepzio inkesta baten bitartez, web galdetegi baten bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (*) bitartez seinalatu dira.*)

ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

1. Biztanleria
2. Ongizatea eta gizarteratzea
 - Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak
 - Genero berdintasuna
 - Elkarbizitza
 - Osasuna eta osasun zerbitzuak
 - Telekomunikazioak eta IKT-etara irismena
3. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
4. Etxebizitza
5. Garapen ekonomiko eta lan merkatua
 - Ekonomia egitura eta jarduera maila
 - Lehen sektorea
 - Bigarren sektorea
 - Zerbitzuen sektorea
 - Turismo eta ostalaritza sektorea
 - Enplegua eta lan merkatua

NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

9. Ura
10. Hondakinak
11. Energia
12. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)
13. Arriskuaren kudeaketa eta jarduera ekonomikoak
14. Erosketa publikoa eta udal administrazioa ingurumen kudeaketa
15. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra

LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK


6. Lurraldea eta plangintza
7. Natura eta bioaniztasuna
8. Mugikortasuna eta garraioa

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

16. Komunikazioa, sensibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
17. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:






- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehentasunezko jarduera esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.

<p>BALORAZIOA</p>  <p>Ez baloragarria</p>	<p>Balorazioa egiteko irizpideak “EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa” agertzen dira.</p>
--	---











EBALUAZIO GLOBALA ETA LEHENTASUNEZKO ESKU-HARTZE JARDUERA ESPARRUAK

GIZARTEA ETA EKONOMIA

1. BIZTANLERIA


<i>Azpi-eremua</i>	<i>Egoera</i>	<i>Ondorio nagusiak</i>	<i>Hobekuntza helburuak</i>
1.1. Lurraldearen testuinguruan kokatzea		<ul style="list-style-type: none"> • 2011n udal-erriaren populazio dentsitatea Bizkaiako batez bestekoaren oso azpitik dago bere hedadura dela eta. • Azken hamarkadan, udal-erriaren biztanleria %28 ugartu da gutxi gorabehera. • Zifren arabera etorkizunean biztanleria mantendu egingo dela aurreikusten da. 	✓ Ez da eskuhartzeko lehentasunezko arlorik identifikatu.
1.2. Biztanleriaren bilakaera		<ul style="list-style-type: none"> • 20 urte bitarteko biztanleria gaztea %20,48koa da. Zifra hau eskualdeko, probintziko eta autonomia erkidegoko batez bestearen gaineratik dago. • Zaharkitze indizea beherakadan, 2011n %17,38an egonik. Zaharkitzea UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko gainontzeko udal-erriekin alderaturik, hain nabarmena ez dela izango aurreikusten da. 	
1.3. Egitura demografikoa		<ul style="list-style-type: none"> • Atzeritar kopurua 3,48 portzentaje puntu hazi da 2003 eta 2011 bitartean. UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren gaineratik baina Bizkaia eta EAeko baztez bestekoen azpitik dago. 	
1.4. Mugimendu naturala eta migratzailea		<ul style="list-style-type: none"> • Barreiatutako populazioaren pisua UT21 Nerbioi-Ibaizabal batez bestekoaren gaineratik dago. • Biztanleriaren %71 gutxi gora behera jasotzen duten 8 bizitegi gune daude. Gainontzeko biztanleria landa auzoetan banatzen da. 	
1.5. Populazioaren banaketa, lurraldeka		<ul style="list-style-type: none"> • Orozkoko hiri multzoaren dentsitatea 8,14 etxebizitza/ha da, eskualdeko batez bestekoaren oso azpitik. 	

2. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA






Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
2.1. Gizarte arazoak		<ul style="list-style-type: none"> Orozkok ez du gizarte arazo larririk. Atzerritar biztanleriaren igoerak tentsio pixkat sortu du baina ez du alarma sozialik sortzen. Genero indarkeriaren igoera somatu da. 	<p>Udal eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Biztanlego helduari erabilgarri dauden gizarte zerbitzuei buruz informazioa eman eta komunikatu. ✓ Udal harrera protokolo bat ezarri atzerritar biztanleriarentzat. ✓ Berdintasun Plana garatu eta eguneratua mantendu, desberdintasun eta diskriminazio egoerak konpentsatzera eta zuzentzera bideratutako neurriak bultzatuz gizarte nahiz udal arloan. ✓ Familia barruko indarkeri egoerak eta gizarte bazterketa arriskua aurreikusi eta ahultzera bideratutako ahaleginak areagotu. ✓ Teknologia berrien eskuragarritasuna zein egoeran dagoen aztertu eta dagozkion hobekuntzak ezarri. <p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Posta zerbitzuaren ordutegia zabaldu. ✓ Pediatria zerbitzua ezarri.
2.2. Gizarte zerbitzuak eta ekipamenduak		<ul style="list-style-type: none"> 2003–2008 aldian, Oinarrizko Errenta jasotzen duten familia kopurua bikoiztu egin da nahiz eta UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren azpitik egon. Gizarte larrialdiko laguntza eskakizun guztiak ez dira bete. 	
2.3. Udalak gizarte zerbitzuetan eta elkartasun ekintzetan egiten duen gastu ekonomikoa		<ul style="list-style-type: none"> Jasotzen diren arazorik gehienak atzerritar gazteei eta familiaren arloari buruzkoak dira. Helduentzat udal zentroa badago, Eguneko Egoitzarekin (sartzeko eskakizun murrizta) eta Egoitza Zerbitzuarekin (plaza publikoak betarik daudelarik eta itxaron zerrendarekin). Ongizateari zuzendutako udal aurrekontuaren handitzea 2001–2008 aldian. Gazteen informazio zerbitzua 12tik 17ra bitarteko biztanleriari zuzenduta. Udal aurrekontuaren zati bat beharra daukaten lurraldeei laguntzeko bideratzen da. 	
2.4. Berariazko gizarte politikak		<ul style="list-style-type: none"> Inmigrazioaren Plana (2008–2010). Ez da aurrera egin espero zen bezela. Zerbitzu publikoetan mugak ageriak dira, atzerritartasun arloko baliabide falta, burokrazia prozesu luzeak eta pertsona talde honek duen ezegonkortasuna dela eta. 	
2.5. Gizonezko eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, lanaren esparruan		<ul style="list-style-type: none"> Ez dago Irisgarritasun Planik. Ekipamenduen %90era erraz iritsi daiteke. Emakumezkoen langabezi-tasa baxuena duen eskualdeko udalerria da. Udaletxeko langileetatik %56 emakumezkoak dira eta %44 gizonezkoak. Kultur eta kirol elkarteetan emakumezkoak dira nagusi. 	
2.6. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko egoera berdintasuna, udal esparruan		<ul style="list-style-type: none"> Aukera-Berdintasuneko udal Zerbitzua, berdintasun teknikariarekin. Berdintasun Plana (2008–2012). Berdinbidean barnean sartuta dago Orozko. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Diagnostikoa (2009) eta tratu txar eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeentzat Udal Protokoloa. Delitu indizea Bizkaikoa baino txikiagoa 2009an, hala ere %90eko hazkundera jasan du 2003 urteaz geroztik. 	
2.7. Genero berdintasuneko politikak		<ul style="list-style-type: none"> Ez da udal-erri gatazkatsua. Eskusio arriskua daukan biztanleria dago edo guztiz integraturik ez dagoena. 	
2.8. Bizikidetzeta eta herritarren segurtasuna		<ul style="list-style-type: none"> Puntualki lapurretak gertatu dira nahiz baina ez du gizarte alarmerik sortzen. Lehen mailako Arretako kontsultategia dago eta farmazia ere. Anbulatorio desegokia, ez tamaina dela eta, sarbidea dela eta baizik. 	
2.9. Ekipamenduak eta osasun langileak		<ul style="list-style-type: none"> Pediatria zerbitzua udal-errian ezartzeko eskaera dago. KZgunea: hirugarren adinekoek internet erabiltzen ikas dezaten antolatutako ikastaroa. 	
2.10. IKTetarako eta telekomunikazioetarako irisgarritasuna		<ul style="list-style-type: none"> Kultur Etxean wifi zona ezarri da Interneterako sarbidea doakoa izateko eta ADSL banda zabalean nabigatzeko. Estaldura arazoak daude eta zuntz optikoa ez da auzo batzuetara iristen. Postetxeko ordutegia murrizta dela uste da. 	

3. HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA










Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
3.1. Hezkuntza eskaintza		<ul style="list-style-type: none"> Haurreskola eta lehen hezkuntza dago. Bigarren hezkuntza Laudion. Gaur egun, Udaletxeak dagoen eskaintza publikoa nahikoa dela uste du. 	<p>Udal eskumeneoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Haurreskolaren eskaintza eta hezkuntza instalazioen handitzea eta modernizazioa sustatu. ✓ Euskararen Biziberritze Plana berrikusi eta euskarak gizartean duen erabilera sendotu Plan berriak jasoko dituen neurriak udalak hezkuntza, kultura eta aisiako arloetan garatzen dituen beste ekintza batzuekin koordinatuz, atzerritar kolektiboa bereziki kontutan hartuz. ✓ Administrazioan egiten den euskararen erabilera normalizatu Euskararen Erabilera Planak jasotzen dituen neurrien berrikuspenaren bitartez eta hautematen diren hesiak gainditzea ahalbidetzen duten neurri berriak bilatuz. ✓ Kultur ekipamenduen handitzea eta birkokatzea sustatu. ✓ Kirol ekipamenduen birkokatzea sustatu.
3.2. Hezkuntza eskaera		<ul style="list-style-type: none"> Helduentzako eskola: oinarriko euskara, gaztelera atzerritar biztanleriarentzat eta informatika. 	
3.3. Eskaintza-eskaera balantzea		<ul style="list-style-type: none"> Ikasleriaren %15,5eko jaitsiera haur hezkuntzan 2005-2011 aldian. Hezkuntza instalazioak zaharkituak eta tamaina txikikoak dira. 	
3.4. Herritarren heziketa emaitzak eta heziketa maila		<ul style="list-style-type: none"> Momentuz udalerrian dagoen eskaera behar bezala estalita dago. Bigarren hezkuntza udalerrian bertan gauzatzea eskatzen da. Udaletxeak haurreskolaren eskaintza handitzea aurreikusten du. 	
3.5. Euskalduntze maila		<ul style="list-style-type: none"> UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko bigarren udalerririk euskaldunena da. 2 urte baino gehiagoko biztanleria euskalduna %59,5ean mantentzen da azken urteetan. 	
3.6. Ekipamendua eta baliabideak		<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera etxean handitu egin da 1996 eta 2006 artean %31,1 izatera iritsi den arte. Beti mantendu da gaztelera-erabileraren askoz azpitikago. 	
3.7. Udal politikak		<ul style="list-style-type: none"> Kalean gaztelera-erabilera nagusi dela antzematen da. Kluster-en ikerketaren arabera, jendearen %57ak euskara erabiltzen du kalean. 	
3.8 Euskara udal jardueran		<ul style="list-style-type: none"> Ez dago euskaltegirik, baina eskaera egonez gero hitzarmen baten aukera egon daiteke talde bat osatzen bada. Udal instalazioetan euskara klaseak ematen dira. 	
3.9. Euskara eta kultura		<ul style="list-style-type: none"> Badago Euskara Biziberritzeko II. Plana 2010-2012. Proiekturik gehienak gauzatu dira eta 2012an berrikustea aurreikusi da. 	
3.10. Kultura ekipamenduak eta horien erabilera		<ul style="list-style-type: none"> Duela gutxi sortu da Euskara Taldea, elkarteetako eta politika arloko ordezkariekin. Gazteriak ez dauka euskarazko kirol jarduerarik. Udal langilegoaren gehiengoak ez dauka beharrezkoa den hizkuntza eskakizunik. 	
3.11. Kultura jarduerak eta partaidetza		<ul style="list-style-type: none"> UT21 Nerbioi-Ibaizabal mailan hizkuntza ondarea, ondare etnografiko eta kulturalaren biltze eta zabalkunde lan handia ari da egiten. 	
3.12. Herritarren dinamika kulturala		<ul style="list-style-type: none"> Kultur ekipamenduak ez dira nahikoak. Jarduera batzuk birkokatu egin behar dira. Lokalen eskarera dago entsegurako, biltegiatzerako, etab. 	
3.13. Kirol ekipamenduak eta horien erabilera		<ul style="list-style-type: none"> Biztanleriak kultur gertaerei ematen dien erantzuna ez altua ez dela uste da. Kirol ekipamenduak nahikoak dira. Kasu batzuetan mantenimendu egoera ez da nahikoa. Kirol jarduera batzuk birkokatu egin beharko lirake. Kirol ekipamenduen erabilera altua dela uste da. 	
3.14. Kirol jarduerak eta partaidetza		<ul style="list-style-type: none"> Udalerrian egiten diren ekintzak astean behin egiten dira. Udal gobernuak jarduerak bereziki zabaltzen ditu. 	










<i>Azpihermua</i>	<i>Egoera</i>	<i>Ondorio nagusiak</i>	<i>Hobekuntza helburuak</i>
<p>3.15. Herritarren kirol dinamika</p>		<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko kirol jardueri ematen zaien erantzuna erregularra dela uste da. Garrantzitsuagoak diren kirol gertaeren partehartzea altua da. • Udal laguntza ekonomikoak daude ikastaro eta aisialdiko kirol jardueratarako. • Kirol elkarte gutxiago dago kultur elkarteak baino. Garrantzitsua da beren eginkizuna indartzea. 	

4. ETXEBIZITZA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
4.1. Etxebizitza- parkearen ezaugarriak		<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitza dentsitatea bizitegi lurzoruan %34 jaitsi da 2004 eta 2011 bitartean, Bizkaian erregistraturiko dentsitatea bainoa askoz ere baxuagoa izanik. • Zubiaurren egin diren promozioak dentsitate altukoak izan dira baina gainontzeko auzoetan dentsitate baxuko eraikuntzak dira nagusi. • Udaletxeak babes publikoko 110 etxebizitza aurreikusten ditu. 	<p>Udal eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Saltzeko den babestutako etxebizitza eskaintza sustatu. ✓ Hondamendian dauden etxebizitzaren zaharberritzea bultzatu, batez ere abandonoan dauden baserriena. ✓ Igogailuak ezartzeko dirulaguntzekin jarraitu. <p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Alokairuko etxebizitzari bultzada eman.
4.2. Etxebizitzaren antzinatasuna eta zaharberritzea		<ul style="list-style-type: none"> • Hegoaldeko promozioan, proiektatutako etxebizitza guztien salmenta ez da gauzatu. • Exekutatu gabeko etxebizitza libre asko (etxebizitza guztien %74). • Indarrean dagoen hirigintza plangintzan 2 bizitegi unitate daude, hiri lurzoruan nahiz hiritargarrarian, exekutatu gabe. Eraikuntza prozesua geldirik dago. • Etxebizitza hutsaren garrantzi erlatiboa esanguratsua da (%42,5 2006an). 2012ko urrian 475 etxebizitza huts zenbatu ziren. 	
4.3. Higiezinaren eskaintza: etxebizitzaren eraikuntza		<ul style="list-style-type: none"> • Zaharberritze beharra daukaten etxebizitzaren kopuruaren daturik ez dago. • Baserri gero eta gehiago uzten direla nabari da. • Zaharberritzea beharrezkotzat jotzen da da orokorrean, batez ere Gallartun. • 35 urte baino gehiagoko eraikinen zaharberritze eta mantentzerako laguntzen ordenantza arautzailea dago. 	
4.4. Etxebizitza beharra eta eskaera eta eskaintza- eskaeraren balantzea		<ul style="list-style-type: none"> • Obra lizentziako tasan %50eko kenkaria eskaintzen da igogailuen instalazioan. • Igogailurik gabeko eraikin eta bizilagun elkartek daude. • Etxebizitzaren epe luzerako eskaintza exekutatu gabeko 336 etxe eraikitzean datza. • 2004 eta 2007 bitartean, eskualdeko gainontzeko udalerrietan baino etxebizitza berrien lizentzia askozaz gehiago eman ziren. 2008 eta 2010 bitartean ez da ageri lizentziarik eman zenik eta 2011n Hegoaldeko sailarentzat lizentziak eman ziren. • Etxebizitzaren eskaintza eskaera baino handiagoa dela uste du udaletxeak. 	
4.5. Erakunde arloa		<ul style="list-style-type: none"> • 2005 eta 2010 bitartean etxebizitzaren eskaera indizea handitu egin zen. 2010ean 20 eskaera ageri ziren Etxebizitzaren Orozkon erroldatutako biztanleenak. • Orozko duen hazkuntza aurreikuspenaren arabera, exekutatzear dagoen etxebizitza kopurua etorkizuneko eskaera asetzeko aski dela uste da. • Etxebizitza hutsaren tratamendura bideratutako politika eta programik ez dago. 	








5. GARAPEN EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA



Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
5.1. Eredu ekonomikoa		<ul style="list-style-type: none"> • 2009 urteaz geroztik BPGa eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago eta Bizkaikoaren antzekoa da. 	<p>Udal eta gairako eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Enpleguaren sustapenerako eta ekonomi garapenerako eskualdeko zerbitzu mankomunatuak sortzea sustatu. ✓ Bultzada haundiagoa eman lehen sektoreari. Nekazaritza azokak antolatuz, larreak modu egokian kudeatuz, bertako kalitatezko produktuen salmenta eta ekoizpena faboratuz eta kontsumo taldeak sortuz. ✓ Baso kudeaketa iraunkorreko jardunbideak bultzatu titularitate publikoko basoetan. ✓ Baso kudeaketa iraunkorreko jardunbideak bultzatu titularitate pribatuko basoetan. ✓ Udalerrian turismo sektorea bultzatzeko zuzenduriko baliabideak indartu. ✓ Udal merkataritzari bultzada handiagoa eman. ✓ Udal enplegarritasuna sustatzen jarraitu lan poltsaren bitartez. ✓ Enplegu eske dabilzan sektoreen beharrei egokitutako prestakuntza politikak bultzatu. ✓ Lanbide heziketako eta prestakuntza jarraia eskaintzen duten zentroekin
5.2. Jarduera ekonomikoren maila orokorra		<ul style="list-style-type: none"> • Balio Erantsi Gordinari (BEG) dagokionean, hirugarren sektorea nabarmenki gailentzen da, eraikuntza sektorea askotxo hazi da eta nekazaritzarena gainbeheran joan da. • Nekazaritza eta eraikuntza sektoreak eskualdeko, Bizkaiko eta EAEko batez bestekoen oso gainetik daude. 	
5.3. Familiaren ongizate ekonomikoa maila		<ul style="list-style-type: none"> • Establezimendu berrien sorkuntza tasa UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoaren azpitik dago, 2011 urtean izan ezik. • Pertsonaren guztizko errentaren goranzko eboluzioa gertatu zen 1997 eta 2006 bitarte. • Lanetik eratorritako pertsonaren errentaren txikitzea 2003 eta 2006 bitarte. • Nekazaritza azaleraren txikitzea 1989–1999 bitarte, batez ere landutako lurrena. • Arditarren eta zalditarren hazkundera eta ahunztarren jaitsiera bortitza. • Udaletxeak uste du lehen sektorea garrantzitsua dela eta landu beharra dagoela. • Bigarren jardura gisako abeltzaintza eta nekazaritza jardura asko dago. • Lehen sektorearen ekonomi pisuaren txikitzea azken hamarkadan. • Eskualdeko belardi gehienak Orozkon kokatzen dira. • Baso azpi-sektorearen beherakada eskualdean 2010 urteaz geroztik. • Titulartasun pribatuko baso jardueraren nagusitasuna, batez ere koniferoena. • Industri sektoreak BEGari egiten dion ekarpenaren hazkuntza 2000 eta 2008 bitartean (%7). • Okupatutako biztanleriaren beherakada industri sektorean 2001 eta 2010 bitarte. • Industri sektorearen jarduerak beheranzko joera erakusten du. • Industria batez ere Zabalde, Torrezar eta Bengoetxeako poligonoetan kokatuta dago. • Eraikuntza jardueraren hazkuntza bortitza 2008an. • Bitanleria Audio/Llodiora joaten da erosketak egitera; baita ere Vitoria-Gasteiz eta Bilbora. • 4,49 txikizkako establezimendu daude mila biztanleko 2011ean, kopuru hori UT21 Nerbioi-Ibaizabalek duenaren (7,40%) eta Bizkaia duenaren (12,68%) azpitik dago. • Gertuko merkataritzak, herrigunean kokatua, ondo funtzionatzen du. • Okupatutako biztanleriaren %62,5 zerbitzuen sektorean zegoen. • Turismo eskaintza dago nahiz eta eremu honetako zerbitzuak egoki orientatu ez diren. 	
5.4. Lehenengo sektorearen egitura			
5.5. Lehenengo sektorearen bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa			
5.6. Basogintza sektorea			
5.7. Bigarren sektorearen egitura			
5.8. Bigarren sektorearen bizitasuna eta errendimendu ekonomikoa			
5.9. Zerbitzu sektorearen egitura			

Azpieremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
5.10. Zerbitzu sektorearen bizitasun eta errendimendu ekonomikoa		<p>Udaletxeak turismo sektorea bultzatzea oso interesgarritzat jotzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ostalaritza establezimenduen eta jatetxeen bat bateko jaitziera 2007 urteaz geroztik. • 2010ean 58 alojamentu plaza daude eta gutxienez 195 plaza jatetxeetan 5 establezimendutan banatuta. • Orozkoko Museoaren kudeaketa zerbitzua eta Gorbeiaiko Turismo Informaziorako Zentroa kontratatuko dira laster. • Biztanleria aktiboaren tasa %49,9koa zen 2010ean, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko batez bestekoa baino txikiagoa. 	<p>elkarlanean aritu enpleguaren eskaintza eta eskaeraren arteko harremana optimizatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Emakumea lan munduan sartzeko politikak bereziki indartu. ✓ Telelanaren ezarpena hobetzen duten politikak ezarri.
5.11. Turismo eta hostalaritza sektorea		<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen jardura tasa goranzkoan mantentzen da 2001 urteaz geroztik, nahiz eta UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEkoa baino txikiagoa izan. • Okupazio tasa 2006an eskualdekoa, Bizkaikoa eta EAEkoaren batez bestekoa baino handiagoa zen. 	
5.12. Turismo baliabide eta erakargarritasunak		<ul style="list-style-type: none"> • Langabezi tasa %8,84koa zen 2011ko hiruhilabeteen, UT21 Nerbioi-Ibaizabal, Bizkaia eta EAEkoen batez bestekoak baino txikiagoa. • 2011 urtean, emakumeen langabezia tasa txikiena duen eskualdeko udalerrria da. • 2010ean, UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko kontratu mugagabeen, emakumeenak barne, kopuru txikiena duen udalerrria da Orozko. 	
5.13. Biztanleria aktiboa		<ul style="list-style-type: none"> • 2010ean kontratuen errotazio indizea nabarmenki handiagoa da Bizkaia eta EAEkoak baino. 	
5.14. Biztanleria okupatua		<ul style="list-style-type: none"> • Udalerrian bizi den eta udalerrian bertan lan egiten duen biztanleria okupatuaren portzentaia %34koa izan zen 2001ean, eskualdeko udalerrien batez bestekoa baino handiagoa eta Bizkaia zein EAEkoen batez bestekoak baino txikiagoa. 	
5.15. Langabezia		<ul style="list-style-type: none"> • Ez dago eskualde mailan orientazio eta enplegu zerbitzurik. • Ez dago enplegu sustapenerako eta ekonomiaren dinamizaziorako planik. 	
5.16. Kontratazioa		<ul style="list-style-type: none"> • Induma Kultur eta Gazteen Informaziorako Bulegoak 2011 urteaz geroztik curriculumak biltzen ditu, datu base bat edukitzeko eta enpresen beharrei erantzuteko helburuz. • Duela gutxiz geroztik Lanbideko langileak astean behin etortzen dira udalerrira lanaren orientazio zerbitzua eskaintzeko. 	
5.17. Laneko mugikortasuna, nork bere buruari eustea eta autosufizientzia			
5.18. Enplegu eta prestakuntza politikak			






LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

6. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA








Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
6.1. Lurralde eremua		<ul style="list-style-type: none"> Orozko Audio/Llodioko Eremu Funtzionalaren baitan dago. Lurzoru Urbanizaezina: azaleraren %97, gehiengo baso azalera (%78) eta pribatua. 3.200 ha Erabilera Publikoko Mendiak dira. Lurzoru Urbanizaezinaren %58 nekazaritza eta abeltzaintzarakoa eta landazabala da. 11.250 ha inguru abeltzainek hitzarmen bidez kudeatzen dituzten udal jabetzako belardiak dira. 	<p>Udal eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> Udal planeamenduaren berrikuspenarekin loturik ondorengo helburuak hausnartu: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Behar gehien duten auzo eta guneeetan hirigintza erreformak exekutatu. ✓ Zaharberritu gabe dauden arkitektura ondarearen elementuen zaharberritzea. ✓ Planeamenduan goi mailako planeamenduaren irizpideak txertatu. ✓ Hiri planeamenduan iraunkortasun irizpideak (dentsitateak, erabileren dibertsifikazioa, ingurumen eraginak, etab.) txertatzen jarraitu. ✓ Nekazaritzarako bokazioa duten lurzoruen babes jarduerak garatu. ✓ Eraikuntzan eta zaharberritze lanetan energi eraginkortasuneko irizpideak txertatu. <p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Nerbioiko parke lineala ekologi korridore gisa bultzatu.
6.2. Udal lurzoruaren egitura organikoa eta erabilerak		<ul style="list-style-type: none"> Lurzoru urbanizagarriaren ekonomi jardueretarako 3,29 ha bete gabe geratzen dira. Ingurumen Hobekuntzarako eremu bat dago (46,13 ha), aktibo dagoen erauzketa jarduera batek betetzen duena. 	
6.3. Hiri egitura eta ehundura		<ul style="list-style-type: none"> 3 hirigune eta 18 landagune daude, euren artean distantzia handiak daudela. Eremu libreen sistema orokorrak estandarrak betetzen ditu. Hiri parkeek eta guneez ez dute euren artean konektaturiko sarerik eraten baina bai nekazaritza eta baso lurzoruarekin konektaturikoa ordea. Presatzuko etxebizitza sektorean guneez bat sortzea aurreikusita dago. Bengoetxea eta Torrezarren hirigintza aldetik hobetu beharreko guneez daude. Mendian barreiaturiko zabortezi inkontrolatuak daude. Arkitektura, histori eta arkeologi ondarea oso zabala da. Udal planeamendua tokiko arkitektura intereseko eraikinen katalogoa barneraturik dauka. 	
6.4. Hiriko eta hiri inguruetako berdeguneak		<ul style="list-style-type: none"> Mantenimendurik egin ez zaien eraikinak daude. Audio/Llodioko LZPak Orozko landa guneen Turismo Goiburu izatea proposatzen du. Halaber, lurralde antolamendurako erreferentziatzat den biztanleria zentro izatea eta ekonomi jardueretarako lurzoruaren neurritzat hazkuntza izan dezala proposatzen du. Etxebizitza Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak, Orozko babes ofizialeko etxebizitzaren operazio osagarrien lurzoruaren garapenerako interesa duen udalerrira gisa kategorizatzen du. 	
6.5. Hiripaisaia eta guneez hondatuak		<ul style="list-style-type: none"> Energia Eolikoaren Sektorekako Lurralde Planak udalerrian (Ganekogorta Mendian) parke eoliko bat instalatzea proposatzen du. 	
6.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala		<ul style="list-style-type: none"> Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAPak iparraldeko mugan eta Nafarrondoko erauzketa jardueran eremu erosiagarriak identifikatzen ditu eta udalerrira iparraldeko 	
6.7. Lurralde eta sektore antolamendua			






Azpihermua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
6.8. Hiri antolamendua		<p>mugan eremu bat korridore ekologiko gisa mugarritzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko LAParen arabera, nekazaritza eta abeltzaintzarako diren 832,58 ha-tatik 217,80 ha balio estrategiko altukoak dira. • Arratia-Nerbioi eskualdeko 2011-2015 Lehen Sektoreko Plan Estrategikoa eta Arratia-Nerbioiko Landa Garapen Programa (1999 urtekoa) daude. 	
6.9. Antolamenduan eta eraikuntzan iraunkortasun irizpideak sartzea		<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriak 2003an onartutako Arau Subsidiarioak dauzka. • Ez dira goi mailako planeamenduen irizpideak indarrean dagoen udal planeamenduan oraindik barneratu. • Indarrean dagoen udal planeamenduak berariazko iraunkortasun irizpide gutxi baitaratzen ditu lurraldearen antolamenduan, araudi eta eraikuntzan. 	

7. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA

Azpi-eremua	Egoera	Ondorio nagusiak	Hobekuntza helburuak
7.1. Natura eta paisana balioak		<ul style="list-style-type: none"> • Ingurune eta habitaten dibertsitate handia dago (40tik gora dira). • Ibaietan haltzadi kantauriarraren ilarek eta, Gorbeian, Batasunaren lehenetsuneko intereseko habitatek dira. • Ongi egituraturako Batasunaren intereseko habitatak ur ibilguetan. • Arnauri eta Altube ibaiek egoera ekologiko neurritzakoa dute. 	<p>Udal eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Natur ingurunearen potentzialki kutsatzailak diren jardueren kontrol eta jarraipena, eta bereziki, ibaian eragina dutenena. ✓ Udallerriak dituen natur potentzialtasun eta balioen azterketa eta inbentariatzea (planeamenduen berrikuspenaren esparruan egitea posible da) ✓ Arautegi eta legeen bidez babestuta dauden habitat eta espezieen babes eta kontserbazioa bermatzeko neurriak hartu. ✓ Landare inbaditzaileak suntsitzeko neurriak ezarri. ✓ Ingurumenaren kontserbaziorako eta hezkuntzarako jarduerak ugartu herritarren inplikazio eta elkarlaguntza bilatuz. ✓ Natur baliabideak balioan jartzea hezkuntza, sentikortze eta turismoaren bultzadaren bidez. <p>Udalaz gaindiko eskumenekoak</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Natur balioen babes eta kudeaketarako tresnak aplikatzea.
7.2. Sistema naturalen eta paisaien kontserbazio egoera		<ul style="list-style-type: none"> • Ur ibilgu zenbaitzuen goiburuak Gorbeia Parke Naturalaren eta mehatxutako espezieak direla eta interesekoak diren beste gune batzuen baitan daude. Altubeko goiburua ibai erreserba naturala da. • Plan Hidrologikoak ibai ertzeko 30,56 km-ren birlandaretzea proposatzen du. • Ez dago egina udalerrri osoko ondare naturalaren inbentario osorik nahiz eta badagoen babestutako naturguneen berariazko azterlanik. • A68 autopistak udalerria gurutzatzen du hesi efektua eta zarata eragina sortzen du. • Aktibo dagoen erauzketa jarduerak Unzueta mendia hegalean eragina sortzen du. 	
7.3. Jardueren eragina eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean		<ul style="list-style-type: none"> • Ehiza kontrolatuko hainbat eremu daude. • Basurdeek baratze guneak hondatzen dituzte eta hori dela eta auzotarren kexak jaso ohi dira. • Paisaia eragina baso sail landatuen hustiaketa ondorioz. • 28 espezie aloktono identifikatu dira udalerrian. • Mendian kontrolatu gabeko zabortearen arazoak agertzen da behin eta berriz. • Udalerriko lurraldearen %39ak Gorbeia BGLa eratzen du. Gorbeia, gainera, Parke Naturala da. Itxinako Biotopo Babestuaren %93 Orozkon dago. 	
